


22. Newsletterra Otsaila 2026

Enfokatur Euskadiko Turismo Behatokiak Euskadiko eskaintza eta eskari turistikoaren koiuntura-adierazle nagusien azterketa laburra egin du. Txosten honek **2025eko urteko eta abenduko emaitzak eta turismo-ostatu arautu guztiei** buruzko informazioa jasotzen du.

2025EKO URTEA



PLAZAKAKO OKUPAZIO-MAILA

(%) * (VS. 2024)

%40,30

41,10%

Hotelak	%1,2	↑	Vitoria-Gasteiz	%0,4	↑
Nekazalturismoa	%7,2	↑	Bilbao	%1,8	↑
Kanpinak	%3,1	↓	Donostia	%0,2	↓
Apartamentu turistikoak	%0,0	=	Euskal Kostaldea	%2	↑
Aterpebe turistikoak	%1,9	↑	Mendi eta haranak	%4	↑
			Arabako Errioxa	%5,9	↑

ESKEINITAKO PLAZAK EGUNEKO

59.531

(+3,3)

Hotelak	%2,8	↑	Vitoria-Gasteiz	%0,8	↑
Nekazalturismoa	%1,1	↓	Bilbao	%5,9	↑
Kanpinak	%0,5	↑	Donostia	%0,1	↑
Apartamentu turistikoak	%15,6	↑	Euskal Kostaldea	%1,9	↑
Aterpebe turistikoak	%3,3	↑	Mendi eta haranak	%2	↑
			Arabako Errioxa	%1,8	↑

2025 urteak, 2024koaren aldean, **balantze positiboa izan du** adierazle nagusi guztietan: +% 3,3 (59.531) egunean eskainitako plazetan; +% 4,4 (4.950.070) turisten sarreretan; +% 3,6 (10.436.815) gaualdietan; eta +% 2 (% 41,10) plazen okupazio-mailan.

Desestazionalizazio-indizea % 30ean mantendu da, baina ez du lortu 2027rako ezarritako % 33ko helburua (urtarrila, otsaila, martxoa, azaroa eta abendua biltzen dituen hilabete-multzoak guztizkoan duen pisu portzentuala adierazten du). **Urtarrilean eta otsailean urte arteko hazkundea % 8koa izan da, eta abenduan % 7koa. Azaroa, aldiz, % 1 soilik hazi da, eta martxoa % 9 jaitsi da.**

Kanpinek behera egin dute eskari-adierazle guztietan, 2024 urtearekin alderatuta; eta landa-ostatuak, egunean eskainitako plazetan. **Gainerako ostatu-tipologiek, aldiz, emaitza positiboak izan dituzte.**

Helmuga guztiek handitu dute egunean eskainitako plazen kopurua. Vitoria-Gasteizek behera egin du turisten sarreretan. **Donostiak ere behera egin du sarreretan, gaualdietan eta plazen okupazio-mailan.** Gainerako helmugek, aldiz, emaitza positiboak izan dituzte ostatu-eskariaren adierazle guztietan.

MERKATU IGORLEEN SAILKAPENA. 2025EKO URTEA

10 MERKATU IGORLEEN SAILKAPENA 2025EKO

JATORRIAK	SARRERAK 2025 vs 2024	GAUALDIAK. 2025 vs 2024
Madrilgo Erk.	%3 ↑	%1,9 ↑
Euskadi	%3 ↑	%0,1 ↓
Frantzia	%2,7 ↓	%2,3 ↓
Katalunia	%0,6 ↓	%1,3 ↓
Estatu Batuak	%14,7 ↑	%18 ↑
Erresuma Batua	%20,7 ↑	%18,5 ↑
Alemania	%7,7 ↑	%11,6 ↑
Gaztela eta Leon	%1,1 ↑	%0,8 ↓
Andaluzia	%0,8 ↑	%1,7 ↑
Valentziako Erk	%5,9 ↑	%3,7 ↑

Nazioarteko merkatuak % 48,4ko merkatu-kuota historikoa lortu du 2025ean. Estatuko merkatuak kuota handiagoa du (% 51,6), baina urte arteko **hazkunde txikiagoa izan du (+% 3), nazioarteko merkatuaren igoerarekin alderatuta (+% 6).**

Hamar merkatu igorle nagusien artean nazioarteko lau daude: Frantzia, Ameriketako Estatu Batuak, Erresuma Batua eta Alemania. Sarreretan eta gaualdietan, Frantziatik eta Kataluniatik datozenek soilik izan dituzte beherakadak. Bestalde, barne-merkatuko eta Gaztela eta Leondik datozenen gaualdiek ere behera egin dute.

Sailkapenaren buruan daude, ordena honetan: **Madrilgo Erkidegoa (% 12), barne-merkatua Euskadi (% 9,9), Frantzia (% 9,1), Katalunia (% 7,5) eta Ameriketako Estatu Batuak (% 4,6).**

ABENDUA 2025



ESKEINITAKO PLAZAK EGUNEKO

52.551

(-3%)

Hotelak	%0,9	↑	Vitoria-Gasteiz	%0,4	↑
Nekazalturismoa	%1,3	↓	Bilbao	%3	↑
Kanpinak	%33,5	↓	Donostia	%1,7	↓
Apartamentu turistikoak	%6,9	↑	Euskal Kostaldea	%2,7	↑
Aterpebe turistikoak	%11,8	↑	Mendi eta haranak	%1	↓
			Arabako Errioxa	%1,7	↑

PLAZAKAKO OKUPAZIO-MAILA

(%) * (VS. 2024)

%40,30

41,10%

Hotelak	%1,2	↑	Vitoria-Gasteiz	%0,4	↑
Nekazalturismoa	%7,2	↑	Bilbao	%1,8	↑
Kanpinak	%3,1	↓	Donostia	%0,2	↓
Apartamentu turistikoak	%0,0	=	Euskal Kostaldea	%2	↑
Aterpebe turistikoak	%1,9	↑	Mendi eta haranak	%4	↑
			Arabako Errioxa	%5,9	↑

2025eko abenduan, 2024ko hilabete beraren aldean, **% 3 plaza gutxiago eskaini dira eguneko (52.551). Ostatu-eskariaren adierazle guztiek gora egin dute: sarreretan, +% 6,9 (300.981); gaualdietan, +% 1,5 (592.942); eta plazen okupazio-mailan, +% 5,3 (% 29,60).**

Ostatu-tipologiei dagokienez, eskari-adierazleek balio positiboak aurkezten dituzten, **sarreretan eta gaualdietan behera egin duten kanpinetan izan ezik.** Plaza-eskaintzari dagokionez, landa-ostatuak eta kanpinek plaza gutxiago eskaini dituzte egunean.

Vitoria-Gasteizek behera egin du ostatu-eskariaren adierazle guztietan, 2024ko abendua datuen aldean. **Bilbok % 2,2 egin du behera plazen okupazio-mailan.** Plaza-eskaintzari dagokionez, Donostiak eta Barnealdeak behera egin dute.

MERKATU IGORLEEN SAILKAPENA 2025EKO ABENDUA

10 MERKATU IGORLEEN SAILKAPENA 2025EKO ABENDUA

JATORRIAK	SARRERAK 2025 vs 2024	GAUALDIAK. 2025 vs 2024
Euskadi	%2,6 ↑	%5,6 ↓
Madrilgo Erk.	%1,5 ↑	%3,1 ↓
Frantzia	%6,9 ↑	%6,4 ↑
Katalunia	%11,7 ↑	%9 ↑
Gaztela eta Leon	%6,1 ↑	%2,1 ↓
Valentziako Erk	%14,2 ↑	%9,7 ↑
Nafarroa	%13,3 ↑	%9 ↑
Andaluzia	%10 ↑	%5,8 ↑
Aragoi	%0,2 ↑	%5,7 ↑
Portugal	%2,7 ↑	%6,4 ↓

Estatuko merkatuak nazioartekoak baino kuota handiagoa du (lehenak % 65,4 eta bigarrenak % 34,6). Nazioarteko merkatua, ordea, gehiago hazi da (+% 10,1) 2024ko abenduarekin konparatuta; **estatuko merkatua % 5,2 igo da.**

Abenduko hamar merkatu igorle nagusien artean, gehienek hazkundea izan dute. Barne-merkatuko, Madrilgo Erkidegoko, Gaztela eta Leongo eta Portugalgo gaualdiek soilik egin dute behera. Abenduan, **nazioarteko bi merkatu igorle daude** hamar nagusien artean: Frantzia eta Portugal.

Sailkapenaren buruan hauek daude, hurrenez hurren: barne-merkatua **Euskadi (% 15,5), Madrilgo Erkidegoa (% 13,5), Frantzia (% 10,4), Katalunia (% 8,8) eta Gaztela eta Leon (% 4,3).**